

Aurkezpena

Txantxariak munduan zehar han eta hemen gabiltzan pertsonak gara. Horregatik, beti aurkituko gaituzu hemen. Gurekin jolastu eta gure berri eduki ahal izango duzu.

Txantxarien laguntzaz jolasten has zaitezten hainbat aukera proposatu nahi dizkizuegu haur, guraso eta irakasleoi. Denak dibertigarri, denak gogo-gozagarri. Mari Txipi, Arantxa Zabaleta, Antxon eta Txantxibiri Kamino izango dituzue bidelagun, Braulio astoarekin batera.

TXANTXARIAK ikuskizuna:

Jolasa bizitzen ikasteko era bat da. Jolasen bidez ikasten dugu gure buruari helburuak jartzen. Jolasa, pertsonen arteko harremanak errazteko edo olioztatzeko modua da, taldeak osatu eta trinkotzekoa, lagundu eta lagundua izatekoa. Jolasa, haur eta gurasoen arteko loturak estutzeko bidea da, hurrek eta gurasoek bizitzaren alderdirik atseginenez elkarrekin gozatzeko bitartekoak. Txantxarien bitartez ia ahaztuta zeneuzkaten jolasak gogora ekarriko dituzue eta ezagutzen ez zenituzten berriak ikasiko dituzue.

Bi orduko iraupena duen jarduna da proposaturikoa.

